



# Getxo

*bizi ezazu*

Orri kopurua / Nº de páginas:

Data / Fecha:

## **PRENTSA-OHARRA / NOTA DE PRENSA**

### **Aiboa eta Alango artean oinezkoen pasabideak hobetu eta sendotzeko obrak adjudikatu dira**

### **Adjudicadas las obras para mejorar y consolidar los itinerarios peatonales entre Aiboa y Alango**

Aiboa eta Alango artean oinezkoen pasabideak hobetu eta sendotzeko obrak adjudikatu ditu udalak. Obra horietan 2 metroko zabalera duten ibilbideak egingo dira eta, zoladura egokitzeaz gain, zona desberdinak behar bezala argiztatzeko beharrezkoak diren argiak ere jarriko dira. Horrela, gunere horretako segurtasuna eta irisgarritasuna hobetuko dira (kota murriztuko da, % 6ko inklinazioa baino gutxiago izan dezan).

Neguri eta Algorta auzoen artean oinezkoentzako konexioa sortzeko planean sartzen da aipatutako proiektua. Horretarako, beste hiri-parke bat sortuko da Aiboako goiko gunean, zeinaren bidez Alango eta Konporte kaleetatik metro-geltokira joateko ibilbide irisgarri eta segurua egingo den. Planak beste bi jarduketa hartzen ditu barne: Aiboako geltokia Miguel Beaskoa kalearekin lotzen duen igogailu berri bat jartzea Udal Egoitzaren ondoan, eta inguru horretan dagoen baso-eremua parke gisa egokitzea. Proiektua idazteko fasean daude jarduketa biak.

Beste zenbait proiektu gehitu behar zaizkie jarduketa horiei, hala nola Alangon laugarren igogailua instalatzea, Alango eta Aiboa artean oinezkoentzako ibilbideak egitea, Iturribarri

El Ayuntamiento ha adjudicado las obras de mejora y consolidación de los itinerarios peatonales entre Aiboa y Alango. Se trata de la ejecución de itinerarios de 2 metros de anchura, en los que se adecuará el pavimento y se dispondrá el alumbrado necesario para la correcta iluminación de las diversas zonas, con lo que se mejorará la accesibilidad –se rebajará la cota, que no superará el 6% de inclinación- y la seguridad en este área.

Este proyecto forma parte del plan para la conexión peatonal de los barrios de Neguri y Algorta mediante la realización de un nuevo parque urbano por la zona alta de Aiboa que, a su vez, permita un paso accesible y seguro a su estación de metro desde los barrios de Alango y Konporte. El plan incluye dos actuaciones más: la instalación de un nuevo ascensor que conecte la estación de Aiboa con la calle Miguel Beaskoa, a la altura de la Residencia Municipal, y la adecuación como parque de la zona boscosa de dicho entorno. Ambas actuaciones están en fase de redacción de proyecto.

A ellas hay que sumarles otros proyectos como la instalación del cuarto ascensor de Alango, los itinerarios peatonales entre Alango y Aiboa, el parque de la zona de Iturribarri, etc.



# Getxo

*bizi ezazu*

guneko parkea, etab.

Kalkulatu da oinezkoentzako pasabideak egiteko lanek bost hileko iraupena izango dutela, hasten direnetik zenbatzen hasita. Bideei dagokienez, egoera txarrean dauden gunek hobetuko dira eta beste batzuk zolatuko dira. Bestalde, argiztapenari dagokionez, luminariak jarriko dira pasabideetan, 24 metro bakoitzeko. Aiboako geltokian hasten den bidea Iturribarri guneko pasabideetara egongo da konektaturik.

Aipatutako proiektuaren jarduketa burutzeko aurrekontua 490.000 euro ingurukoa da.

Se estima que los trabajos de los itinerarios peatonales, una vez iniciados, tengan una duración de unos cinco meses. En cuanto a la validez, se mejorarán las zonas que se encuentran en mal estado y se pavimentarán otras nuevas. Y en relación al alumbrado, se ubicarán luminarias cada 24 metros a lo largo de los itinerarios. La senda que parte de la estación del metro de Aiboa conectará con los itinerarios de la zona de Iturribarri.

El presupuesto de la actuación de este proyecto asciende a cerca de 490.000€.

**(\*) Argazkia eskuratzeko:**

<http://www.getxo.eus/prensa>.

**Pasa-hitza: fotoscortes**

**(\*) Para acceder a fotografía:**

<http://www.getxo.eus/prensa>.

**Contraseña: fotoscortes**

GetxoUdala



YouTube

GetxoUdala



YouTube

**Prensa Bulegoa:** 94 466 03 20.

Eskatzen dizuegu ohar hau zabaltzea. Eskertzen dizuegu halako arreta izatea beti. Adeitasunez.

**Oficina de prensa:** 94 466 03 20.

Rogamos la difusión de esta nota. Agradecemos la atención que siempre nos prestáis. Atentamente.